

COLEGIO DE AGENTES Y COMISIONISTAS DE ADUANAS DE BILBAO ELKARGOA DISOLBITZEKO LEGE-AURREPROIEKTUA

ARAU-ERAGINA AZTERTZEKO MEMORIA

PROPOSAMENAREN EGOKITASUNA ETA AZTERTUTAKO ERREGULAZIO-AUKERAK

a) Arauaren beharra

Colegio de Agentes y Comisionistas de Aduanas de Bilbao elkargoak berak eskatu du bere desagitea, eta Zerbitzuen Eskuragarritasun- eta Erabilera-askatasunari buruzko Legea egokitzeko zenbait lege aldatzen dituen abenduaren 22ko 25/2009 Legearen onarpenaren eta horren ondorioz aduana-agentearen figura legez desagertzean oinarritu da. Era berean, erantsi dute aduanan deklarazioak egiteko eskubidea eta aduana-ordezkararen figura arautzen dituen martxoaren 19ko 335/2010 Errege Dekretuaren ondoren, lanbidean jarduteko elkargoko kide egiteko betebeharra indargabetu dela. Horrek guztiak, Elkargoak emandako informazioan oinarrituta, berekin ekarri du elkargoan kide gehiago ez sartzea eta elkargokide kopuruaren bilakaera negatiboa izatea.

Ildo horretan, 2021eko abenduaren 27an, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Erregistro Orokorrean sartu zen Irache Gómez Vázquez andreak aurkeztutako eskaera, Bilboko Aduanetako Agente eta Komisio-hartzaileen Elkargoa desagiteko. Eskabidearekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko Tituludun Lanbideen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 30.1.3 artikuluan eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu zen.

Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeak dio profesionalen elkargoak desagiteko Eusko Legebiltzarraren legea beharko dela.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaria da elkargo profesionala desagiteko eskaerari buruzko espedientea izapidetzeko organo eskuduna, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Kontuan hartu diren aukera erregulatzaileak edo ez-erregulatzaileak

Aipatutako lege- eta erregelamendu-manuak kontuan hartuta, eta proposatutako irtenbide arautzailearen justifikazioa kontuan hartuta, ezinbestekoa da lege-aurreproiektu hau egitea, planteatutako arazoari erantzun eraginkorra emateko, zuzendaritza-organoa sustatzaile honen iritziz ez baitago bestelako irtenbide erregulatzailearik edo ez-erregulatzailearik.

EDUKIAREN DESKRIBAPENA ETA AURREIKUSITAKO ARAUAREN AZTERKETA JURIDIKOA

a) Aurreproiektuaren edukiaren deskribapena

Aurreproiektuak lau artikulua eta azken xedapen bat ditu, eta, horren bidez, memoria honetan adierazitako gaia arautzen da: Colegio de Agentes y Comisionistas de Aduanas de Bilbao elkargoa desegitea.

Hona hemen arauaren egitura:

Lehenik eta behin, hitzaurrea dauka. Bertan, arloko eskumenari, aplikatu beharreko araudiari, aurrekariei eta araua egiteko beharrari buruzko alderdiak jasotzen dira.

Lehenengo artikulua arauaren xedea jasotzen du, hau da, elkargoaren desegitea onartzea.

Bigarren artikulua, likidazio-batzordeari buruzkoa, elkargoak bere eskaeran egindako proposamena onartzen du.

Hirugarren artikulua likidatutako ondarea zertarako erabili behar den adierazten du, elkargoaren estatutuen 56. artikuluan agertzen den bezala. Halaber, ezartzen du erakundeak agiri bidez justifikatu behar duela administrazioaren aurrean alderdi hori betetzen dela.

Laugarren artikulua arauaren ondorio juridikoak aipatzen ditu, eta argitzen du elkargoak nortasun juridikoa galduko duela testua EHAAr argitaratzen den unean.

Azken xedapenak argitzen du araua EHAAr argitaratzen den egunean bertan jarriko dela indarrean.

b) Azterketa juridikoa eta zuzenbide konparatuaren eta Europar Batasuneko zuzenbidearen erreferentzia

Kasu honetan, ohartarazi dugun bezala, kontua ez da gai bat arautzea, baizik eta formalki jasotzea elkargo profesional baten desegitea, elkargo horren eskaeraren ondorioz. Hori dela eta, kasu honetan ez da bidezkoa zuzenbide konparatuko azterlan bat egitea.

PROPOSATUTAKO ARAUA ESKUMENAK BANATZEKO ORDENARA EGOKITZEA

Lege berria juridikoki bideragarria izango da, Autonomia Estatutuaren 10.22 artikuluko eskumen eskusiboetan sartzen delako. Hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du arlo hauetan:

"22.- Profesionalen elkargoak eta tituludun lanbideetan aritzea, Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan xedatutakoari kalterik egin gabe (...)"

Eskumen hori garatuz, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea eman zen. Lege hori Profesionalen Elkargo

eta Kontseiluen eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren Araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren bidez garatu zen.

Aipatutako 18/1997 Legearen 31. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, elkargo profesionalak desegiteko, Eusko Legebiltzarraren lege bat beharko da, profesional interesdunen behar besteko ordezkariak eta behar bezala egiaztatuak eskatuta.

EKONOMIA- ETA AURREKONTU-ERAGINA

Legearen aplikazioak ez du inolako eragin ekonomikorik izango. Ez da beharrezkoa baliabide ekonomikorik erabiltzea, ez eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak aurrekontu-kontsignazio gehigarriak egitea ere.

ADMINISTRAZIO-KARGAK ETA HORIEK BETETZEAREN KOSTUA

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen xedatutakoaren arabera, Arauen Eraginaren Azterketari buruzko Memorian jaso behar dira proposamenak berekin dakartzan administrazio-kargak eta hori betetzeak Administrazioari eta hura betetzera behartuta dauden partikularrei ekarriko dien kostua, bereziki aipatuta enpresa txiki eta ertainen gaineko eragina.

Proposatutako arauak ez du administrazio-kargarik ezartzen adierazitako zentzuan. Partikularrentzat eta ETEentzat, proposamenak ez du kostu ekonomikorik edo inpakturik ekarri behar, soilik eskatzen duen elkargo profesionala desegiten baita.

LEHIAREN GAINKO ONDORIOAK

Arau honek lehia eraginik ez duela uste da.

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINARI BURUZKO AURRETIAZKO TXOSTENA.

Txostena egin da, eta uste da arau honek ez duela eraginik generoaren arloan.

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO IKUSPEGIA XEDAPEN OROKORRAK EGITEKO PROZEDURAN

Aurreproiektua izapidetzean, hizkuntza-arloan indarrean dagoen araudia bete da, beste organo informatzaile batzuek egin beharreko txostenak alde batera utzi gabe. Horrela, Euskararen 10/1982 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko erabiliko den sistema izango da IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak arau-testuaren gaztelaniazko/euskarazko bertsioa itzultzea, lege-proiektua baita.

Era berean, Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko erabakiari jarraituko zaio. Erabaki horren bidez, lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko neurriak onartzen dira. Horrenbestez, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak testu elebidun osoarekin egingo dira, eta testu elebidun osoa izango da instrukzioaren hurrengo faseetan nahitaezko txostenak eta irizpenak eskatzeko bidaliko dena.

Araugintza-prozedura elebiduna izango da xedapen orokorrak egiteko prozedura osoan, eta araua egiten parte hartzen dutenen eta hartzaileen hizkuntza-eskubideak bermatuko dira, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

ARAUAK HAURRENGAN ETA NERABEENGAN IZAN DEZAKEEN ERAGINAREN EBALUAZIOA.

Ez da beharrezkoa arauak haurrengan eta nerabeengan duen eragina aztertzea, arau-testuak ez baitu arlo horretan indarrean dauden legeen aldaketa materialik egingo.

GAZTERIAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIOA

Aurreko atalean adierazitako arrazoi berberengatik, ez da beharrezkoa arauak gazterian duen eragina aztertzea, arau-testuak ez baitu inolako aldaketa materialik egingo arlo horretan indarrean dauden legeetan.

IRISGARRITASUNAREN AZTERKETA

Arauaren helburuak ez du ondorio espezifikorik edo inpakturik eragiten herritarren irisgarritasun unibertsalaren arloan, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean aurreikusitakoari dagokionez.

BESTE ERAGIN GARRANTZITSU BATZUEN EBALUAZIOA

Beste inpaktu garrantzitsu batzuk ez daudela uste dugu.

IZAPIDETZEAREN DESKRIBAPENA ETA HERRITARREI AURRETIKO KONTSULTA EGITEKO IZAPIDEAN EGINDAKO EKARPENAK.

Testua aldeztu aurretik kontsultatu zen, iragarki-taulan eta Irekian argitaratuta, eta ez zen inolako ekarpenik jaso emandako epean.

LEHENENGO IZAPIDETZE-MEMORIA

Lehen memoria hau egin den egunera arte, hasteko agindua onartu da, eta aurretiazko kontsulta egin da. Halaber, txosten bat idatzi da, aurreproiektuak eragindako xedapenen eraginaren, emaitzen edo bestelako ebaluazioen berri emateko.

Egin beharreko hurrengo izapideak izango dira aldeztu aurreko onarpenera ematea eta, ondoren, testua Eusko Legebiltzarrera bidaltzea eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko aholkularitza juridikoaren txostena egitea, memoria ekonomikoa egitea eta hasteko aginduan jasotako txostenak eta izapideak egitea.

EX POST EBALUAZIOAREN AURREIKUSPENA

Gure ustez, kasu honetan ez da bidezkoa. Hala ere, egiaztatu beharko da elkargoak bere estatutuetan adierazitako xederako erabiltzen duela likidazioaren gerakina.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan

EVA LEJARCEGUI BARRENA

TOKI ADMINISTRAZIOEKIKO HARREMANETARAKO ETA ADMINISTRAZIO
ERREGISTROETAKO ZUZENDARIA

ANTEPROYECTO DE LEY DE DISOLUCIÓN DEL COLEGIO DE AGENTES Y COMISIONISTAS DE ADUANAS DE BILBAO

MEMORIA DE ANALISIS DE IMPACTO NORMATIVO

OPORTUNIDAD DE LA PROPUESTA Y ALTERNATIVAS DE REGULACIÓN ESTUDIADAS

a) Necesidad de la norma

El propio Colegio de Agentes y Comisionistas de Aduanas de Bilbao ha sido quien ha solicitado su supresión, sustentándose en la desaparición legal de la figura del Agente de Aduanas a consecuencia de la aprobación y efectos de la Ley 25/2009, de 22 de diciembre, de modificación de diversas Leyes para su adaptación a la Ley sobre el Libre Acceso a las Actividades de Servicios y su Ejercicio. Asimismo, añaden que tras el Real Decreto 335/2010, de 19 de marzo, por el que se regula el Derecho a Efectuar Declaraciones en Aduana y la Figura del Representante Aduanero, se ha derogado la obligatoriedad de la colegiación para el ejercicio de la profesión. Todo ello, en base a la información aportada por el colegio, ha llevado consigo la falta de nuevas incorporaciones al colegio y una evolución negativa de su número de personas colegiadas.

En este sentido, el 27 de diciembre de 2021 tuvo entrada en el Registro General del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno solicitud presentada por Doña Irache Gómez Vázquez, para la disolución del Colegio de Agentes y Comisionistas de Aduanas de Bilbao. Junto con la solicitud, se presentó toda la documentación exigida por el artículo 30.1.3 del Decreto 21/2004, de 3 de febrero, por el que se aprueba Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas del País Vasco.

La Ley 18/1997, de 21 de noviembre, por la que se regula el Ejercicio de Profesiones Tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales señala que la disolución de los colegios profesionales precisará de ley del Parlamento Vasco.

La persona titular de la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos es el órgano competente para la tramitación del expediente relativo a la solicitud de disolución del colegio profesional, según lo establecido en el artículo 11 del Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno.

b) Alternativas regulatorias o no regulatorias que se han tomado en consideración

En atención a los preceptos legales y reglamentarios citados, y en consideración a la justificación de la solución regulatoria propuesta, es imprescindible elaborar este anteproyecto de ley para dar una respuesta eficaz al problema planteado, sin que existan, a juicio de este órgano directivo promotor, soluciones alternativas regulatorias o no regulatorias.

DESCRIPCIÓN DEL CONTENIDO Y ANÁLISIS JURÍDICO DE LA NORMA PREVISTA

a) Descripción del contenido del anteproyecto

El anteproyecto consta de cuatro artículos y una disposición final, a través de lo cual se regula la cuestión manifestada en esta memoria: la disolución del Colegio de Agentes y Comisionistas de Aduanas de Bilbao.

La estructura de la norma es la que sigue:

En primer lugar, cuenta con un preámbulo, que recoge aspectos sobre la competencia en la materia, la normativa aplicable, los antecedentes de hecho y la necesidad de elaborar la norma.

El artículo uno recoge el objeto de la norma, que no es más que aprobar la disolución del colegio.

El artículo dos, relativo a la comisión liquidadora, señala aceptar la propuesta realizada por el colegio en su solicitud.

El artículo tres indica el necesario destino del patrimonio liquidado, que es el que figura en el artículo 56 de los estatutos del colegio. Asimismo, establece la necesidad de que la entidad justifique documentalmente ante la administración el cumplimiento de este extremo.

El artículo cuatro refiere las consecuencias jurídicas de la norma, aclarando que el colegio perderá su personalidad jurídica en el momento en el que el texto se publique en el BOPV.

La disposición final aclara que la norma entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOPV.

b) Análisis jurídico y referencia al derecho comparado y al derecho de la Unión Europea

En el presente caso, como ya hemos advertido, no se trata de regular una materia, sino de recoger formalmente la disolución de un colegio profesional como consecuencia de su propia solicitud. Es por ello que no procede en este caso realizar un estudio de derecho comparado.

ADECUACIÓN DE LA NORMA PROPUESTA AL ORDEN DE DISTRIBUCIÓN DE COMPETENCIAS

La nueva Ley será viable jurídicamente porque tiene su encaje en las competencias exclusivas del artículo 10.22 del Estatuto de Autonomía. En efecto, la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva en materia de:

“22.- Colegios Profesionales y ejercicio de las profesiones tituladas, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 36 y 139 de la Constitución (...)”.

En desarrollo de dicha competencia, se dictó la Ley vasca 18/1997, de 21 de noviembre, de Ejercicio de Profesiones Tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales, que fue desarrollada por Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales.

De conformidad con lo establecido en el artículo 31 de la citada Ley 18/1997, la disolución de los colegios profesionales precisará ley del Parlamento Vasco a petición suficientemente representativa y debidamente acreditada de las profesionales y los profesionales interesados.

IMPACTO ECONÓMICO Y PRESUPUESTARIO

La aplicación de la Ley no tendrá ninguna incidencia económica. No se precisa destinar ningún recurso económico, ni establecer consignación presupuestaria adicional por el Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno.

CARGAS ADMINISTRATIVAS Y COSTE DE SU CUMPLIMIENTO

De conformidad con lo dispuesto en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, se ha de reflejar en la Memoria de Análisis de Impacto Normativo las cargas administrativas que conlleva la propuesta y el coste de su cumplimiento para la Administración y para los particulares obligados a soportarlas, con especial referencia al impacto sobre las pequeñas y medianas empresas.

La norma propuesta no establece cargas administrativas en el sentido expuesto. Para los particulares y para las PYMES la propuesta no debe conllevar, tampoco, coste económico o impacto alguno, toda vez que únicamente se disuelve el Colegio Profesional en cuestión.

EFFECTOS EN LA COMPETENCIA

Se estima que la presente norma no tiene efectos en la competencia.

INFORME PREVIO SOBRE EL IMPACTO EN FUNCIÓN DEL GÉNERO.

Se ha realizado el informe y se estima que la presente norma no tiene impacto en materia de género.

PERSPECTIVA DE NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA EN EL PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN DE DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL

En la tramitación del anteproyecto se ha cumplido con la normativa vigente en materia lingüística, sin perjuicio de los informes que puedan corresponder realizar a otros órganos informantes. De esta forma, el sistema que se utilizará para el cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 8.1 de la Ley 10/1982 del Euskera será la traducción por el

Servicio Oficial de Traductores del IVAP de la versión castellano/euskera del texto normativo, al tratarse del texto de un Proyecto de Ley.

Asimismo, en este aspecto se seguirá el acuerdo de Consejo de Gobierno de 14 de mayo de 2013 por el que se aprueban las medidas para la elaboración bilingüe de las disposiciones de carácter general que adopten la forma de ley, decreto legislativo, decreto u orden, de forma que los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, se seguirán con el texto completo bilingüe y también será texto completo bilingüe el que se remitirá a los efectos de la solicitud de informes y dictámenes preceptivos en las siguientes fases de instrucción.

El procedimiento normativo será bilingüe a lo largo de todo el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general, garantizándose los derechos lingüísticos de quienes participan en la elaboración de la norma y sus destinatarios, conforme a lo establecido en el artículo 5 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

EVALUACIÓN DEL POSIBLE IMPACTO DE LA NORMA SOBRE LA INFANCIA Y LA ADOLESCENCIA.

Resulta innecesario realizar un análisis de impacto de la norma sobre la infancia y la adolescencia, por cuanto el texto normativo no va a realizar ninguna modificación material de las leyes vigentes en la materia.

EVALUACIÓN DE IMPACTO SOBRE LA JUVENTUD

Por las mismas razones que lo expresado en el apartado anterior, resulta innecesario realizar un análisis de impacto de la norma sobre la juventud, por cuanto el texto normativo no va a realizar ninguna modificación material de las leyes vigentes en la materia.

ANÁLISIS DE LA ACCESIBILIDAD

El objetivo de la norma no implica repercusiones específicas o impactos en materia de accesibilidad universal de la ciudadanía en relación con lo previsto en la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la Promoción de la Accesibilidad.

EVALUACIÓN DE OTROS IMPACTOS RELEVANTES

No se considera que haya otros impactos relevantes.

DESCRIPCIÓN DE LA TRAMITACIÓN Y APORTACIONES EN EL TRÁMITE DE CONSULTA PREVIA A LA CIUDADANÍA.

El texto se sometió a consulta previa mediante la publicación del mismo en el tablón de anuncios y en portal web Irekia, no recibiendo ninguna aportación en el plazo habilitado.

PRIMERA MEMORIA DE TRAMITACIÓN

Hasta la fecha de elaboración de esta primera memoria se ha aprobado la orden de inicio y realizado la consulta previa. También se ha redactado un dossier en el que se contienen las evaluaciones de impacto, de resultado o de otro tipo de las que hayan sido objeto las disposiciones que son afectadas por el anteproyecto.

Los siguientes trámites a realizar serán la aprobación previa con la posterior remisión del texto al Parlamento Vasco y el informe de la asesoría jurídica del departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, la elaboración de una memoria económica y la evacuación de los informes y trámites contemplados en la orden de inicio.

PREVISIÓN DE EVALUACIÓN EX POST

Entendemos que no procede en este caso. No obstante, si deberá comprobarse que el colegio ha dirigido el remanente de la liquidación al destino reflejado en sus estatutos.

En Vitoria-Gasteiz, a fecha de la firma electrónica

EVA LEJARCEGUI BARRENA

**DIRECTORA DE RELACIONES CON LAS ADMINISTRACIONES LOCALES Y
REGISTROS ADMINISTRATIVOS**